



MIKEL IRAOLA





Jokin Altunak 22-14 irabazi dio Aimar Olaizolari, buruz buruko txapelketaren finalean; amezketarrek orain arte ibili duten kamiseta urdina gorriarengatik aldatu beharko dute

# Ikaslea maisu

Asier Imaz

**S**akea urdin tokatu zenean, dirua parean zen, baina Altuna III.aren aldeko joerarekin. Sakearen garrantzia zehaztu egiten aritu ziren bi pilotariak finalaren atarian. Olaizola II.ak, finaleko lehen sakea eraman zuenean, Jokin Altunak bigarren pilotakadan erakutsi zuen finalera zertara joan zen: dejada egin zuen txokoan. Ez zuen tan-

toa lortu, baina maisuaren aurrean kartak mahai gainean jarri zituen ikasleak: lotsagabe.

Partidako lehen tantoak benetan gogorrak izan ziren eta Olaizola II.a 2-0 jarri zen aurretik. Bat airez egin zuen goizuetarrak; bestea Altuna III.ak txapara botata. Amezketarraren dejadak, ordea, ez ziren hor amaitu. 2-1ekoa zabalean egindako batekin lortu zuen. Lehen berdinketa binakoan etorri zen, Olaizola II.a sakea erantzun ezinik geratu ondoren. Altunazaleak 2-3koarekin erotu egin ziren, sake erretoan kontrakantxako marra bilatu eta

tanto ederra lortu zuenean. Bi tanto arinen ondoren, partidako seigarrena benetan gogorra izan zen. Bi pilotariak lau t'erdia barruan amaitu zuten jokatzeko. Aimar Olaizolaren aldera erori zen azkenean, bi paret baten ondoren. Nekearen tantoa, ohi bezala, kale bat izan zen. Bolea kanpora joan zitzaion maisuari. Ez zuen aukera probestu amezketarrek, eta tartea zabaldu beharrean Olaizola II.ak markagailua irauli zuen: 5-4.

Partidako laugarren berdinketa zoragarria izan zen: kantxa erditik, ezkerrez, zabalean txapa gainean moztutako pilotakada. Ikaslea maisu!

5-6koa tanto oso gogorra izan zen, ondorengo tantoetan arrastoa uzten duen horietakoa.

Amaieran, Olaizola II.ak kanpora bota zuen, 5-7koa bezala. 122 pilotakada! Oso partida hasiera gogorra, eta Pablo Berasaluzeri goizuetarrak atsedendia eskatzeko esan zion.

Arnasaldiaren ondoren, Altuna III.ak berera jarraitu zuen: pilota hara eta hona mugitzen. Olaizola II.a, ordea, txapeldun handia da, eta defentsan buru belarri zebilela dejada eder batez 6-7koa jarri zuen. Hurrengo bi tantoak antzekoak izan ziren, baina batean batek egin zuen kale eta bestean besteak, atzetik airez pilota eman nahian zebiltzala. Ondoren, sake erretoan bosgarren berdinketa lortu zuen Aimar Olaizolak.

Ondoren berriro Altuna III.ak hartu zuen aurrea. Defentsan eta

erasoan biak ibil ziren. Amezketarrak bere jokoaren ardatzetako bat erakutsi zuen tanto honetan: instintoa. Bi aldiz harrapatu zion Olaizolari II.ari zabalera botako ziola, eta pilota iristerako bera han zen.

Lehen aldiz hiru tantoko alde 8-11koan lortu zuen finalista batek. Eta hasiera besterik ez zen izan, ondoren, Altuna III.ak, zuloa sei tantora zabaldu zuen. Bolada 9-14koan amaitu zen; hau ere tanto gogorra. Amaieran, maisuak txokoan dejada egitea erabaki zuen. Ikaslea iritsi zen, eta maisuen pare dejadari dejadaz erantzun nahi izan zion, kasu honetan txokotik zabalera. Baina gehitxo izan zen eta txapa azpian bukatu zuen pilotak. 10-14koa sake errematean lortu zuen goizuetarrak. Luze atera eta zabalean goxo-goxo: matematikoa. Zuzperraldia? 11-14koa ezker gantxoak hori erakutsi zuen. Sufritu gabe buruz burukoan ez dela ezer lortzen esan zion Juan Martinez de Irujok TOLOSALDEKO ATARIA-ri, finalerdien ondoren, eta goizuetarraren hasierako sufrikarioa amezketarren bizkar jarri zen. Olaizola II.ak dena alde zuen partida berdinketa



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua

## ALTUNA III.AREN TXAPELKETA

### Final-zortzirenak

**Eibar, 2018/04/22**

Julen Retege	12
Altuna III	22

### Final-laurdenak

**Donostia, 2018/05/01**

Urrutikoetxea	16
Altuna III	22

### Finalerdia

**Bilbo, 2018/05/13**

Ezkurdia	17
Altuna III	22

### Finala

**Bilbo, 2018/05/20**

Olaizola II	14
Altuna III	22





## Liluragarria



**Analisis**  
**Jexux Murua**

**P**ilotazaleon artean beste konturik ez dugu ibili azken bi asteotan: Jokin Altuna eta Aimar Olaizola-ren arteko finala. Ze pasa behar du? denon galdera, eta auskal! denen erantzuna. Eta hirulau gauzetan etorri dira bat iritzia eman duten ia guztiak: sakean asmatzen duenak asko izango du irabazia; partida motza komeni zaio Altuna III.ari, eta partida luzatzea Olaizola II.ari; berdintasun handiko finala da, ez dute elkar hautsiko kolpearekin; eta final hau, beste

asko bezala, detaile txikiek erabakiko dute eta hutsik gutxiena egiten duenak irabaziko du.

Sakea beti izan da garrantzitsua, bai orain denak airera jartzen direnean, eta bai lehen botera jartzen zirenean: orain eta lehen premizkoa izan da sakean asmatzea irabaztekoan. Final honetan halere, ez da hain erabakigarria gertatu, bi sake zuzen eta sake-erremate bakarria egin du Jokinek, eta sake-erremate bakarra Aimarrek saketik tantoa zuzenean egitera lortu gabe. Aimarrek ez dio beste batzuetan adinako errentarik atera bere sake loratuari, sei-kuadro parean horman irristan erortzera jartzera jartzen duen horri; ez zaizkio halako asko atera ere, dena esate aldera, baina halako apurretan errestatzaile bikaina eduki du atzean. Jokinek hobeto sakatu du, ez agian Ezkurdiaren aurkakoan bezainbeste, eta zuzenean atera dion errenta handiegia izan ez bada ere, Aimarrek ere izan du bere meritua horretan, tantoa mugitzen hasteko bidea askotan egin du lehen pilotakada horren bidez.

Berdintasun handiko finala

izango zena ez zegoen dudarik eta hala izan da. Partida luzatzea eta gogortzea Aimarri komeni zitzaionaren ustea, ustela gertatu da ordea. Altuna ez da dagonerako 2015ean Jaunarenak eta Aimarrek berak aisa menderatu zuten mutilko korra: zimeldua eta gogortua dago, gorputzez eta buruz; bere aldera erori dira tanto ito gehienak, bereziki, erabakigarria izan den bere hamabostgarrena, sei tantoko alde ia jan dionean Aimarrek. Txakalaldirik izan badu, ederki disimulatu ez ezik, buelta eman ere egin dio.

Lehen tantotik ikusi da Jokinen intentzioa pilota bizi ibiltzea, Aimarri ezker aiderako pilotarik ez uztea, eta, batik bat, Aimar mugiaraztea zela. Alegia, ez ziola goizuetarrari kantxan bere tokia har zezan utzi nahi, gero, handik, ia hanka geldian bere jokoa egiteko: ezker horman jarritako pilota loratuekin kargatu eta, okasioa etortzekoan, ezker airez, zazta! Berarentzat nahi zuen toki hori Jokinek, handik Aimar batera eta bestera mugiarazteko. Baina hori egin egin behar da, eta askotan lortu du.

Horregatik irabazi dio. Tantoak luzatzeko beldurrik gabe, ezker airez, eskuin boleaz edo sotamanoz, eskuinera, ezkerre... batera eta bestera ibili arazi du aurkaria; eta nobedade berri bat, bere gelako ikasle finena dela erakutsi dio maisu handiari: eskuinez botera Aimarrek aurkariei jarri izan dien penitentzia bera ezarri dio Jokinek berari, pilota ezker-horman txintxilika jarritz behin eta berriz, entregatu arte eta, gero, ezker gantxo, zazta! Eta sufritzea tokatu zaionean, sufritzen jakin du, nola gainera. Ezkurdiaren aurka erakutsi zuen, eta baita gaur ere.

Pentsatua zutena bete-betean egin duela esango nuke. Liluratu gaitu erasoan eta liluratu gaitu eusteko garaian. Ez du apenas oparirik egin, ausart jokatu du hala zegokionena, ia erabaki guztietan asmatu du, eta horrelaxe egin beharra zaukan txapeldun izateko, are, Aimar Olaizola bezain txapeldun handi bati irabaztekoan. Eta mehezimendu osoz irabazi dio.

Amezketan txapelduna dute berriro. Txapeldun liluragarria. Zorionak guztioi, batik bat, hiri, Jokin!

tzeko, baita sakea aterata ere. Lehen kuadroan nahi zuena egiteko aukera zuen. Altuna III.ak zabalera aukeratu eta bertara joan zen. Eta goizuetarrak pilota... zabalera. Tantoari eta bolada txarrrari buelta eman zion amezketarrak, eta bi paret zoragarri batez 13-15koa jarri zuen. Partidak erabakitzen dituen tanto horietakoa izan zen. Gogoratzen Ezkurdiak kanpora bota zuen bi hormako hura?

Sakearen berreskuraketa ez zuen alferrik galdu amezketarrak. Ia berdinduta egotetik zazpi tantoko alde izatera pasa zen Jokin Altuna: 14-20. Jarraian zazpigarren tantoaren bila zebilela, ordea, kale egin zuen. 22ra joatea ez zen hain erraza izango. Edo hori zirudien, Olaizola II.ak hurrengo tantoan, agintzen ari zela, pilota ezker horman gora bota zuenean. Ezohiko akatsa, eta txapela tanto batera.

Eta amaieran... nola ez, partida, finala, hasi bezala amaitu zuen Altuna III.ak: dejada batekin. Ikaslea, maisu!

## Hamabostgarrena



**Analisis**  
**Mikel Artola**

**H**ogeita bi egitean irabazten omen dira partidak, baina batzuetan izaten dira azkenaren kutsua izaten duten lehenagoko tantoak ere. Horietako bat izan zen Jokin Altunak egin zuen hamabostgarrena: batera eta bestera ibili eta gero, Aimar Olaizolak gurtzatzen asmatu ez, eta bi paretak boleaz; erraza ematen du horrela

ikusita. Bolada ona harrapatua zuen Aimarrek, eta bazirudien Jokin mottelaldia pasatzen ari zela. Baina horrelakoetan egin litekeen gauzarik onena egin zuen, tanto gogorra jokatu eta modu dotorean amaitu, aurkaria oinak lurrean itsatsita utzita.

Partidako tanto garrantzitsue-na lortzeaz gain, ia dena bikain egin zuen Jokinek atzo, txapelketa osoan bezala. Hasieratik ikusi zen bakoitza zertara etorri zen. Handia da Bilboko frontisa, baina hauentzat gehiena soberan dago: ertzetatik bi metrora arrasto bat markatuko bagenu lauki bat eginez, erdian geratzen den guztia balekoa ez balitz bezala jokatzeko dute. Olaizola batez ere goiko txaparen bila, ona etortzean behekoa aurkitzeko asmoz. Eta Altuna berriz ezker

eta eskubi pilota bizi mugituz, korri egitekotan hobe baiteak egitea. Nahiz eta biek egin bietatik, taktika horrekin aritu zirela esango nuke partida osoan zehar, eta Jokinen hamaikagarren eta hamabigarren tantoetan nabarmendu zen Aimar pilota atzeratzeko nahiko lanekin zebilela. Horretan zeukan, ziur asko, partida ateratzeko modu bakarra, baina ez zuen pilota nahi bezala gozatu. Jokinek, aldiz, hasieratik bukaerara asmatu zuen pilota nahi zuen lekuan jartzen, eta Aimarrek berak askotan egin duena egin zuen erditik aurrera, ezker paretan, juxtu eskua sartu behar den lekuan jarri. Ez dago hobeto egiterik.

Dena den, hobeto egin daitekeena eta egiten dakiena sakea da. Batez ere erdira arte Ezkurdiaren aurka baino gutxiago sakatu zuela esango nuke. Ezker paretak gehitxo batzuetan, eta ba-

tere jo ez zuen bakarren bat edo beste ere bai. Ez zuen ordea gehiagoren beharrik izan, besteak beste Aimarrek berak ere ez zuelako asmatu horretan. Hantxe joango zela uste genuen askok partida, baina ikusleen gozamenarako, ez zen hala gertatu. Tanto borrokatuak eta ederrak jokatu zituzten.

Eta ez nituzke aipatu gabe utzi nahi askotan suerteari egotzen zaizkion Altunaren hiru tanto. Aimarrek bukatzeko izan zitzakeen hiru ezkerkada erraz harrapatu zitzaion Jokinek, bat txokotan eta bi zabalean. Baterako edo bestera abiatu behar izaten du horrelakoetan defentsan ari denak, eta ehuneko berrogeita hamarrek aukera izaten dela esan ohi da. Ez nuke leporik jokatu horrela dela esanez. Hirutik hiru asmatu zitzaion atzo Olaizolari, eta hori ez da ehuneko berrogeita hamar... Zorionak, Jokin!




# logikaline

www.logikaline.com info@logikaline.com  
San Joan Pza, S/N, 20269, Abaltzisketa (Guipúzcoa)



## AZKEN URTEETAKO FINALAK



<b>1989</b>	
<b>Tolosa</b>	22
Retegill	19
<b>1990</b>	
<b>Retegill</b>	22
Tolosa	8
<b>1991</b>	
<b>Galarza III</b>	22
Retegill	15
<b>1992</b>	
<b>Galarza III</b>	22
Retegill	12
<b>1993</b>	
<b>Retegill</b>	22
Galarza III	19
<b>1994</b>	
<b>Arretxe</b>	22
Errandonea	12
<b>1995</b>	
<b>Beloki</b>	22
Errandonea	15
<b>1996</b>	
<b>Eugi</b>	22
Arretxe	19
<b>1997</b>	
<b>Arretxe</b>	22
Elkoro	18
<b>1998</b>	
<b>Beloki</b>	22
Eugi	13
<b>1999</b>	
<b>Beloki</b>	22
Eugi	9
<b>Arretxe</b>	22
Elkoro	11
<b>2000</b>	
<b>Eugi</b>	22
Beloki	13
<b>2001</b>	
<b>Beloki</b>	22
Eugi	8
<b>2002</b>	
<b>Barriola</b>	22
Beloki	3
<b>2003</b>	
<b>Patxi Ruiz</b>	22
Olaizola II	7
<b>2004</b>	
<b>Martinez de Irujo</b>	22
Xala	12
<b>2005</b>	
<b>Olaizola II</b>	22
Martinez de Irujo	18
<b>2006</b>	
<b>Martinez de Irujo</b>	22
Olaizola II	17
<b>2007</b>	
<b>Olaizola II</b>	22
Barriola	10
<b>2008</b>	
<b>Bengoetxea VI</b>	22
Barriola	11
<b>2009</b>	
<b>Martinez de Irujo</b>	22
Olaizola II	12
<b>2010</b>	
<b>Martinez de Irujo</b>	22
Xala	13
<b>2011</b>	
<b>Xala</b>	22
Olaizola II	19
<b>2012</b>	
<b>Olaizola II</b>	22
Martinez de Irujo	7
<b>2013</b>	
<b>Olaizola II</b>	22
Martinez de Irujo	7
<b>2014</b>	
<b>Martinez de Irujo</b>	22
Retegi Bi	9
<b>2015</b>	
<b>Urrutikoetxea</b>	22
Olaizola II	19
<b>2016</b>	
<b>Iribarria</b>	22
Urrutikoetxea	13
<b>2017</b>	
<b>Bengoetxea VI</b>	22
Iribarria	18
<b>2018</b>	
<b>Olaizola II</b>	x
Altuna III	x



M.IRAOLA

«Zeruan nago, ez daukat gehiago eskatzerik»

## JOKIN ALTUNA PILOTARIA

Bere buruarekin oso harro dagoela, horixe azaldu du Jokin Altuna amezketarrak finala bukatu bezain azkar: Aimar garaitzeaz galdetzean «nahiz eta zail ikusi beti ateratzen naiz kantxara dena ematera», erantzun du.

### Erredakzioa

Finala bukatu orduko, emozio eta poz handia nabari zitzaion amezketarrari.

**Ez zinela egungo manomanista handienekin lehiatzeko esan zenuen eta bi hilabete geroago txapeldun.**

Tope borrokatu dut eta asko sufritu. Sufritu gabe hemen ez dago ezer, eta gutxiago nik aurrez aurre izan ditudan aurkariekin. Nahiz eta zaila ikusi beti ateratzen naiz kantxara dena ematera. Oso harro nago nire buruarekin.

**Finala ikusgarria eta gogorra izan da.**

Hasieratik izan da partida oso gogorra. Aste hasieratik egon dira esaten partida gogorra ba-

zen Aimarren aldekoa izango zela, baina, azkenean ez da horrela izan. Nik uste dut aurten partida gogorak ia denak egin ditudala, eta ondo ikusten nuen nire burua. Hamabigarren tantotik aurrera errenkadan egin ditut tantoak, eta hor urte dut bera ikaragarri bete dela. Gero alde-rantziz gertatu da; bera hasi da tantoak egiten, eta nik izan dut pattalaldia. Guztiok nekatzen gara, eta inportanteena buelta ematea da.

**Sakean bigarren zatian hobeto aritu zara.**

Finala da, eta hori nabaritu egin da. Frontoi guztia bete dago, eta haiseran oso urduri nengoen. Ez nuen asmatzen pilota ondo zuzentzen.

**8-14 jarri, gero Aimar 13rager-**

**turatu, eta hortik zuzenean 20ra joan zara.**

Aimar errespetu handia ematen duen aurkaria da, eta badakizu oparirik ez dizula egingo. Hor izan dut tanto erabakior bat bolez bi pareta egin dudana, eta uste dut hori izan dela gakoa.

**Hiru final jokatu eta hiruretan erakutsi duzu maila.**

Garrantzitsua da hori. Oso gustura nago lortutakoarekin. Badakit etorriko direla partida onak jokatuko ez ditudan egunak.

**Askok pentsatuko zuten Jokin Altuna ez zela iritsiko buruz buruko txapeldun izatera.**

Nik argi nuen aukera edukiko nuela noizbait txapeldun izatera iristeko. Hori bai, hain goiz izatea ez nuen espero. Zeruan nago, ez daukat gehiago eskatzerik.

**Zer esan amezketako zaleen inguruan?**

Bilboko pilotalekuak amezketakoa zirudien. Benetan oso esker-tuta nago.

**Nori eskainiko diozu txapela?**

Familikoei, neskari, finalean babesa ematera etorri direnei... Nire zaleak ez dira soilik amezketarrak, eta badakit finalera herri askotatik etorri ezinda geratu direla sarrerak agortuta zeudelako. Denentzat da txapela.

# SAN MARTIN

## Edaritegia

EGUNA PASATZEKO TOKI PAREGABEA

ALTUNEGI AUZOA, 17  
TEL. 943 65 40 49

20268 AMEZKETA





AIMAR OLAIZOLA

# «Erakutsi du fenomeno bat dela, eta txapela irabazi du»

## EKAITZ SARALEGI BOTILEROA

Jokin Altunaren alboan izan da Ekaitz Saralegi pilotari ohia, eta pozik agertu da: «Artista handi bat dela» esan dio Altuna gazteari.

**1** «Altunak merezita irabazi du. Berak nik baino hobekiago jokatu du eta ni baino gehiago izan da»

**2** «Momentu klabeetan ia denetan berak hobeto asmatu du. Paretean sartzen ez dut asmatu, eta berak merezita irabazi duela uste dut»

**3** «Txapelketa guztian sakearekin min asko egin dudala esango nuke, baina gaur uste dut ez dudala sake batekin ere asmatu»

**4** «Biontzako partida gogorra izan da. Tanto mugitu asko izan dira, baina ez nuke nekeagatik izan denik esango. Zabalean gerria sartu eta paretean sartu beharrekoetan ez nuen asmatzen eta eskura ematen nizkion»

**5** «Ez nuen ongi gurutzatzen eta gainera berak eman egiten zion pilotari. Hor berari eman behar zaio meritua. Airez jo eta urruti jartzen zidan pilota»

**6** «Gaur baino gehiago jokatzea banuela uste dut, baina ez da erraza. Pena horixe, esan dudan bezala gehiago eman nezakeelako. Baina hurrengo egunetan uste dut baloratuko dudala egin dudan txapelketa»

**7** «Etorri den jende guztiari eskertu nahiko nioke. Hemen egotea ez da gutxi, eta nik ahal dudan guztia egin dut, baina aurkaria ni baino gehiago izan da»

**8** «Oporrak ongi etorriko zaizkit des-konektatu eta tentsio guzti hau askatzeko»

### Mikel Iraola Amezketari

Ekaitz Saralegi herritarra beti izan du alboan Jokin Altunak. Atzoko partidaren botileroaren aulkitik ikusi zuen partida, eta latz sufrituz.

#### Zorionak zuri ere Ekaitz.

Bai, eskerrik asko. Tokatzen zai-gunagatik.

#### Nola bizitu duzu gaurko finala. Intentsoa ezta?

Bai, hasieratik ikusi da hor baze-goela zerbait desberdina. Nik uste dut Aimar eta Jokinen partidak aurreikuspen handiak izan dituela. Hasiera-hasieratik oso partida gogorra izan da, tanto gogorak egin dituzte, eta beldurra ematen zuen. Aimarrek partida luzatuko zuela, eta ea Jokinek nola erantzun zion, baina erakutsi du fenomeno bat dela eta txapela irabazi du.

#### Zein izan da partidaren gakoak?

Nik uste dut bera gerturatu zaionean ere Jokinek jakin duela nola jokatu, eta Aimarrek ez dio behin ere pasa. 14-13 gerturatu zaio, baina hor Jokinek tantoa egin du eta nik esan diot tanto hark partidua balio zuela eta horrela izan da.



#### Olaizola II.a gerturatuagatik ere ez da kikildu Altuna?

Bai. Tanto guztiak dira garrantzitsuak eta tanto guztiak jokatu behar dira. Tanto bat ikaragarriko gogorra jokatu dute, eta bere alde erori da zortez, eta hortik aurrera 18ra joan da Jokin. Deskantsutik fresko etorri da, eta berriz ere sakearekin min egin dio.

#### Zer esan diozu Jokini?

Artista handi bat dela eta potro latzak dituela, horixe!

#### Lau t'erdikoan apustu bat egon zen tartean. Ez dakit oraingoan?

Ez, ez. Hori egin genuen eta hemen badaezbada ere isilik egotea hobe, bestela hemen jendeak harrrapatu egiten ditu eta... hobe pake-pakean Amezketara bueltatu, afaldu eta bihar lanera isilik.



Lau t'erdiko txapela irabazi zuenean...  
Buruz buruko finala irabazi duenean...


Atariak kontatu dizu.  
Hurrengo ere kontaktzen jarraitzeko...



Egin Atarikide

943 65 56 95 | atarikide@ataria.eus





Jokin, amezketarron enbaxadore  
herritarrontzat ilusio eta ohore  
pilotan zer esanik ez, beti dotore  
herrigintza sustatzen ere  
egin zera doktore

AU PA  
JOKIN!!



Amezketako Udala



## BIZKAIA PILOTALEKUKO ERREAKZIOAK



«Partida oso estrategikoa izan da bien aldetik»

**JULEN TELLERIA  
TOLOSA**

Arraro xamar bizitu dut. Normalean bata edo bestearen aldeko jarrera argia izaten dut horrelakoetan, baina, gaurkoan, ez zitzaidan hainbeste inporta nork irabazi, baina, gertukoa izanda, porra tanto batengatik Altunaren alde jarrita nuen.

Finala Bilbon bertan askoz ere intentsitate handiagoarekin bizitzen da, eta oso pozik nago ikusitakoarekin, eta batez ere pozik Altunarengatik. Partida oso estrategikoa eta taktikoa iruditu zait bien aldetik. Altunak asmatu egin du, eta dena atera zaio.



«Ez da irabazten duen azkena ezta bigarren txapela izango»

**BEÑAT BELOKI  
BEDAIO**

Zaila izango zela bagenekien, eta esan daiteke ia Altunak baino gehiago sufritu dugula guk kuadrillakook. Baina, hori bai, zalantzarik gabe, merezi izan du finalean bizitakoak.

Partidari dagokionez, urduri xamar hasi dela esango nuke, baina, bigarren zatian oso ondo jokatu du, eta merezitako txapela jantzi du. Hemendik aurrera auskalo zenbat txapela jantziko dituen. Ematen ari den maila kontuan hartuta ez da ez azken txapela izango, ezta bigarrena ere.




«Ziur nago anaiak hemendik aurrera asko emango duela»

**NEKANE ALTUNA  
AMEZKETA**

Oso urduri bizitu dut finala. Anaiak irabaziko zuenaren konfiantza barenuen, baina, Aimarren aurka ezin da inoiz jakin, pilotari oso-oso handia baita. Gainera, hasieran nahiko parrakak joan dira, bi tanto batek, besteak beste bi tanto, eta familian tentsio handiarekin bizitu dugu. Sa-kearekin ere ez du gehiegi asmatu Jokinek, baina, azkenean, aurrea hartu dio, eta lortu du, beraz, oso gustura nago.

Hemendik aurrera ez dakit anaiak zer emango duen, baina, ziur nago asko emango duela.



«Haren ondoan handiagorik ez dago une honetan»

**AITOR AGIRREZABAL  
TOLOSA**

Amezketarra dut emaztea, eta horri esker Altuna lehengusua dut. Irabaztera etorri gara, eta txapelarekin itzuliko gara etxera, beraz, oso pozik. Partida ikaragarria izan da, oso ondo jokatuakoa. Beste guztiekin egin duen moduan, Aimar garaitu du. Jokin handia da, eta haren ondoan handiagorik ez dago une honetan.

Hemendik aurrera ematen ari den mailarekin jarraitu behar du, hori bai, lurak oinean zapalduta. Pilotan jarraitu behar du, partidak irabaziz.



«Jokinek buru izugarria du, eta indarra ere bai»

**MAITE TOLOSA  
AMEZKETA**

Ikaragarria izan da. Hasieran nahiko berdinduta joan da. Egia da biek ikaragarri jokatu dutela, baina gure txikiak egurra eman dio. Nik ez dut pilotaz gehiegi ulertzen, baina, fisikoki oso ondo ikusi dut Jokin, eta azkenean irabazi egin du. Aimar ere ondo aritu da, baina, Jokin fenomeno da.

Bigarren zatian Jokin nagusitu da, agian Aimar nekatuago egon da. Jokinek buru izugarria du, eta indarra ere bai. Izugarrizko partida egin du. Amezketatik etorri garenak topean aritu gara animatzen.



«Handiak egiten ari da, eta handiagoak egingo ditu»

**GAIZKA JAUREGI  
BEDAIO**

Gaizki. Urduritasun handiarekin. Partida bihar berriro ikusi beharko dut, zehaztasun gehiagorik ikusteko. Ondo jokatu dute biek, baina, 13. tantotik aurrera hautsi egin da pixka bat, eta eskerrak horri. Partida oso gogorra izan da. Aimar opari batzuk gehiago egiten ikusi dut, eta Jokin, berriz, oso ondo ikusi dut. Jokinez edozer gauza espero dezakegu. Handiak egiten ari da, eta handiagoak egingo ditu.



«Edonori irabazteko gai dela erakutsi du beste behin»

**IGOR ZUBELDIA  
AZKOITIA**

Bere laguna naiz, eta bere zale amorratuak gara kuadrillan. Oso ondo ikusi dut, ezin hobeto. Partida perfektua atera zaio. Hasieratik oso ondo hasi da, eta une guztietan jakin du zer egin. Erdetik bukaerara bitarte, berriz, berak eraman du partida. Merituz irabazi du, eta hona iritsi da erakutsi duelako balio duela, eta lan handia egin duelako. Edonori irabazteko gai dela erakutsi du Jokinek beste behin.



«Aho asko itxi ditu, eta merezimendu handiarekin»

**ERIK JAKA  
LIZARTZA**

Ikaragarria da. Berarengatik sentitzen dudana poza izugarria da. Bera ere nigatik asko pozten den moduan. Egin duena izugarria da, inork espero ez zuena. Aho asko itxi dituela iruditzen zait, eta merezimendu osoz gainera. Partida urduritasun handiarekin ikusi dut, asko sufritu dut. Partida ondo eraman du eta sakearekin gehiago asmatuko balu are hobeto eramango luke. Besarkada handia emango diot.

«Finalaren aurretik esan nion txapeldun ikusten nuela»

**JOXE ALTUNA  
AMEZKETA**

Banuen iloba Jokinek irabaziko zuenaren esperantza. Hori bai, jendea gehiago zegoen Aimarrek irabaziko zuela, baina, azkenean Jokinek irabazi du. Buruz burukoa irabazteko adina kategoria edo maila duela Jokinek badakit, eta horregatik itxaropentsu nengoen. Poza ikaragarria sentitzen dut. Jokin beti izan da oso formala, eta pilotan ere horrela erakutsi du. Finalaren aurretik ere esan nion bera ikusten nuela irabazle moduan, berarekin kontaktzen nuela.



  
**AMETZA edaritegia**  
943 47 87 62  
Amezketeta





# Afizioa ere harro



**BEARTZANA**  
J A T E T E X E A

San Bartolome, Amezketza  
943 650 695 / beartzana.com








Herri guztia mugitu du Jokin Altunaren buruz buruko finalak. Tentsioa, urduritasuna, ilusioa, poza,... denak biltzen ditu Altuna fenomenoak. Galdu edo irabazi guztiak harro dira, Altuna afizioarekin eta afizioa pilotariarekin. Herria Altunaren aldeko pankartekin esnatu zen, eta Bilbo bera ere txiki geratu zitzaien.





# Tolosaldea Amezketako eta baita Goizuetako semearekin

Eskualdeak zirrarez, emozioz, gogoz, tentsioz eta gozamenez jarraitu zuen atzo Bilboko Bizkaia pilotalekuko final handia



**OMAYRA ZUBELDIA**  
ABALTZISKETA

«Zegama Aizkorriko korrikalari eta lagunekin batera ikusi dut Altzoko elkartean. Partida zirrargarria izan da, oilo ipurdia jartzekoa!

Seguru beste final askotan frontitik bertatik gozatzeko aukera izango dugula Jokinekin. Zorionak eta disfrutatu, artista!»



**LEIRE SAIZAR**  
ADUNA

«Partida telebistaz jarraitu dut, Amezketan, familia giroan. Partida oso gogorra izan da hasieratik, eta emozioz bete.

Zorionak Jokin! Onena haiz eta jarraitu horrela! Zorionak benetan. Txapela buruan eta ibili munduan!»



**XABIER TELLETXEA**  
ALBIZTUR

«Partida ikaragarria izan da, gogorra, erritmo ikaragarrian jokatu eta tanto ederrekoa, batik bat Jokinen partetik. Aimar, zabaleko pilotak jasotzean normalean baina erraztasun handiagoak ematen. Jokini lehen ere esan izan diot, eta berriro errepikatzen dut: desberdina da».




**PATXI RENOBALÉS**  
ALEGIA

«Partida oso gogorra gaur egungo bi artistarik eta profesionalik handien artekoa. Aimarrek ez du eman berea baina izugarri egon da. Pilotak eta sakeak zerikusia izan dutela uste dut. Zorionak Jokin! Ekaitz ondoan arratsalde eder ugari pasarazten ari haiz!».



**AITOR SORARRAIN**  
ALKIZA

«Lehen erdia, behintzat, partida ikaragarri gogorra. Jokin oso sartuta, oso ondo nahastu du. Hori poza txapelarekin ikusi dugunean; bai dotore! Baserrian bizi garelako, bestela gure oihuekin... Jeseus! Ez omen zuen buruz bururako balio... Aupa Jokin! eta Aupa Athletic!».



**MARI MURUA**  
ALTZO

«Bizkaia pilotalekuan, bertatik bertara eta lagunekin, partida oso gogorra bizitu dugu. Urduritasun handia: sakea hartzean poza, erretoan kezka. Hona iristea ikaragarria izan da, eta irabaztea gehiago Jokin! Harro gaude zutaz. Zorionak!».



**IÑAKI LIZASO**  
AMASA-VILLABONA

«Begiak busti zaizkit. Historiako pilotari onenetakoa da Aimar. Bere markak puskatu eta historia egiteko jaiotako pilotaria da Jokin. Edozer espero nian higitik, baina hain azkar? Zorionak potto! Elkarren aurka, horrelako partida ikusteak... zirrara, poza, ilusioa sortu dit».



**ANE HARANBURU**  
ANOETA

«Jokinek partida kontrolpean izan du denbora guztian. Sakearekin hobeto aritu da. Tentsio pixka bat jarri du, baina oso gustura. Ikusteko moduko partida izan da. Oraindik txapela gehiago lortuko dituela esango nioke Altunari, eta eusteko sasoi horri».



**IZASKUN SARASOLA**  
ASTEASU

«Erraz irabazi duela uste dut. Aimarren ondoan gazte eta fresko ikusi dut. Poz handia sentitu dut gaztea eta gipuzkoarra txapeldun ikusita. Pilotari zalea ez naiz, baina beti gertu izan dut kirol hau, eta oso gustura gertukoak irabazi duelako. Horrela segi, Jokin».




**JAIONE OLANO**  
BALIARRAIN

«Partida ikaragarria izan da, gogorra, tanto luzeekin. Aimar ezinean ikusten nuenean, pena ematen zidan. Partidaren erdi parean, betiko Aimar ikusi dudanean, posible zela ikusi det txapela irabaztea. Finalean txapela bakarra zegoen eta guk aurrean bi txapeldun».



**NEREA ARREGI**  
BELAUNTZA

«Gozatu egin dut partida ikusten; emozioz beterikoa izan da. Hasieran Altuna urduri ikusten zen, baina behin partidaren sartuta pilotari handia dela erakutsi du. Zorionak Jokin! Egindako lanaren ordaina da txapela! Zure gaztetasunean heldutasun handia erakutsi duzu».



**URKO ATXUKARRO**  
BERASTEGI

«Berastegiko Urepele elkartearekin zegoen, Aimar Olaizolaren eta Jokin Altunaren arteko final gogoz, lagun arteko porra eta guzti. Final gogorra bezain ikusgarri baten ondoren euliak zapoa mendean hartu du. Zorionak Jokin! Altuna txapeldun!».





**XABI ZUBIRIA  
BERROBI**

«Partida oso gogorra eta tentsio handikoa. Emozio eta poz handia sentitut Altunak irabazi duenean. Horrela jarraitzeko esango nion Jokini, gehiago irabaziko dituela. Eta Aimarri nahikoa meritu baduela horreraino iristeagatik; pilotari handia dela».



**LUIS GALARRAGA  
BIDANIA-GOIAZ**

«Partida oso ona. Gogorra aurreneko parten. Bigarren zatin irabazi du Jokinek, eta zorionak gipuzkoar bezala, eta pilotak niretzat asko irabaziko duelako Jokin bezalako gazte batek irabazita. Belaunaldi aldaketa datorrela dirudi. Aimarri zorionak, maila eman duelako».



**PATXI ZEBERIO  
ELDUAIN**

«Finala Bizkaia pilotalekua bertan ikusteko aukera izan dut, lagunekin. Partida oso ona izan da eta kalitate izugarrikoa. Teknikoki harri-garria, benetan. Jokinei zorionak eta besarkada bat. Gozatu ondo merezitako txapela izan da eta».



**JOSUNE GOROSTIDI  
GAZTELU**

«Zirraragarria. Gogorra. Oreakua, baina momentu erabakigarrietan Jokinek gehiago asmatu duela esango nuke. Fisikoak ere bere eragina izan du. Pilotari ona eta burutsua denez, osasuna eta lesioen aldetik zorte ona opa diot. Irabazi nahiz galdu, kantxan goza dezala».



**ALAITZ IMAZ  
HERNIALDE**

«Hernaldeko elkartean ikusi dugu lagunekin. Partida gogorra, bi errematatzaile handirekin. Izana eta badatorrena. Poza, horren pilotari gazteak gisa horretara Aimar bezalako mito bat menderatzean. Kalitatea izen dela eta izango dela erakutsi duzue. Zorionak bio!».



**AINARA OTAMENDI  
IBARRA**

«Etxeko egongelatik ikusi dut buruz buruko finala, bakarrik gainera. Partida gogorra izan dela argi gertatu da, tanto ederrak egin dituzte tartean nola bata, hala besteak. Miresmena sentitu dut.

Txapela bakarra zegoen jokoan, baina bi txapeldun handi finalean».



**PILI LAZKANO  
IKAZTEGIETA**

«Zoragarria iruditu zait. Berriz ere ikuskizuna eman du Jokin Altunak. Askok gustatu zait. Agian ez zuen inork espero Jokinek irabaztea, baina partida bikaina jokatu du. Aimar ere txapeldun handia da, eta horregatik: Zorionak Jokin eta zorionak Aimar!».



**OLAIA ETXEBERRIA  
IRURA**

«Etxean ikusi dut partida, familia giroan. Punta-puntako finala izan da, afizioa egiten duen horietakoa. Altunak artista hutsa izateaz gain, ederki sufritzen ere badakiela erakutsi digu.

Askok gozatu dugu finala, bejondeizula Jokin!».



**IÑAKI ESNAL  
LARRAUL**

«Etxean ikusi dut finala, familiarekin. Partida azkarra eta oso gogorra izan da. Momentu batean Aimarrek buelta emango ziola sentitu dut. Zorionak Jokini eta baita Amarri ere egin duten txapelketagatik.

Segi dezatela horrela datozen urteetan ere!».



**MAIER UGARTEMENDIA  
LEABURU-TXARAMA**

«Ilusio berezia piztu du bi belaunaldiren arteko finalak. Une klabeetan Altunak asmatu du, eta bere defentsa, boleaz, oso zitala izan da. Zorionak Altunari! Buruz burukoa irabazteak meritu du, baina Olai-zolari irabazteak meritu bikoitza du!».



**IRAITZ OLAETXEA  
LIZARTZA**

«Gazteak freskotasun gehiago erakutsi du. Ikaragarriko poza eta emozioa Jokinengatik. Zorionak eta poz ugari emateko hago! Gozatu ingurukoekin ingurukook hirekin gozatzen diagun adina! Handia haiz! Aimarri eskerrik asko irakasgaiengatik, masiu handia haiz».



**AIMAR AGIRRESAROB  
ORENDAIN**

«Partida izugarria. Bigarren zatian Aimar ezinean eta Jokin hazita, oso ondo, burua hotz eta lanean serio. Aimarri ez da esaten dioten bezain zaharra eta aurrera segi dezala. Jokini goza dezaka; orain arte bezain umil lanean jarrai dezala historian bere izena izki larriz jartzeko».



**JOXE BALERDI  
OREA**

«Bizkaia frontoian ikusi dut partida, emaztearekin eta Jokin Altunaren familiarekin. Partida oso ona ikusi dugu bi pilotarien aldetik. Horrela segitzeko lanean esango nioke Jokini, gu ikustera joango garela! Zorionak Jokin eta zorionak Ekaitz Saralegi!».



**ANE ARTUTXA  
TOLOSA**

«Hasieran partida parekatua izan da, tentsio askokoa. Ez zen inor nagusitzen, final batek eskatzen duen bezala. Tanto interesgarri asko; gozatzeko partida. Zorionak bi pilotari! Jokini, bere gaztetasuna aprobetxatuz jarrai dezala lanean, txapela gehiago lortzeko!».



**ITXASO ERASUN  
ZIZURKIL**

«Etxean ikusi dut familiarekin. Partida ikusgarria izan dela iruditu zait. Tanto benetan borrokatu, zirraragarri eta apartekin. Zorionak Jokin! Eta aupa Aimar. Beste hainbeste urtetan horrela segi dezazuela».



# Eskualdea finalari begira

Tolosaldeko tabernetako nahiz elkarteetako telebista ia guztietan buruz buruko finala izan zuten jarrita atzokoan, partidak jarraipen handia izango zuenaren seinale



Villabonako Behar Zana elkartearen partida hasi aurretik, pilotazaleak final handirako gogoz. IÑIGO TERRADILLOS



Ibarrako Gaztelubide tabernan partida jarraitzen.



Alegiko Route 33 tabernan jendetza elkartu zen amezketarraren finala jarraitzeko.



Tolosako tabernarik gehienetan buruz buruko finala jarri zuten telebistan.



Adin guztietako jendeak adi-adi jarraitu zuen partida.



Tolosako erretirodunak finala hasi aurretik azken partida jokatzeko.





# Ogitartekoen tenplu berria.

Denak **GOXO GOXOAK** garagardo on batekin  
ezin hobeak. **HARRITUKO** zaituzte.

Denen gustukoak, **BETIKOAK**,  
**EXOTIKOAK**, **FAMILIARRAK**, **XXL**  
hori dena gure lagun **SUKALDARIEN** eskutik.





Hogeita bigarrenera iritsitakoan Amezketa Ametza taberna zutik jarri zen. IRATI SAIZAR

# Topa Jokinen alde

Bilbora joan ez zirenek, herrian bertan sutsuki animatu zuten Jokin. Urduritasuna eta tentsioa festa bilakatu ziren partida amaitzean, eta ospakizun amaigabea hasi zuten.

moz, aulkitik altxata amaitu zituzen tantoak. Azken tantoa, ordea, zutik eta ukabilak goian zituzean ikusi zuten gehienek. Saltoa amaitu zuten partida, txaloka, emozionatuta. Suziriek eta txanpainen kortxoek adierazi zuten festa hasi zela, noiz arte luzatuko zen inork ez bazekien ere, Jokinen izena oihukatuz topa eginda eman zioten hasiera ospakizun amaigabeari.

**Irati Saizar** Amezketa

Tentsioa nagusi zen igande arratsaldeko orduetan Amezketa inguruan. Kaleak erdi hutsik, frontoia festarako prestatzen eta taberna barruetan jendea urduri.

Txapela herrira iristeko nahia nabaria zen herritarren artean.

Arratsaldeko lehen kafe zurrupadetan partidaren aurreikuspen eta iritziak entzuten ziren. Jendea sinetsita zegoen posible zela, Jokinek horrelakorik egin

ahal zuela. Behin partida hasita, berriz, herritarren aldeko animo oihuek ordura arte zegoen isiltasuna musikatuz zuten. Baziren partida guztian zehar eserita egotea lortu zutenak, baina beste askok, Altunari indarra eman as-



**ARKAITZPE**  
Jatetxea  
943 65 58 48  
AMEZKETA


Txindoki  
jätetxea  
Errekalde kalea, 8  
Amezketa  
Gipuzkoa  
© 943 65 31 97







Behar Zana tabernan ere jendeak urduritasunez bizitu zuen Altunaren finala. IRATI SAIZAR



Ospakizunerako prestaketa lanak egin zituzten frontoian. IRATI SAIZAR



**ASTEARTEA, 2018KO MAIATZAK 1**

**Argitaratzailea:**

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

**Lege Gordailua:** SS-1323-2013

**Koordinatzailea:** Naiara Roldan de Aranguiz

**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe

**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.

**Telefonoa:** 943 65 56 95.

**E-posta:** ataria@ataria.eus

**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus

**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

**Anoetaledea:** 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@ataria.eus

**Alegialdea:** 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

**Bezero arreta zerbitzua:** 902 82 02 01



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA  
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain,  
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiaz, Ekuain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,  
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:





# TEILATUGAIN



teilatugain@gmail.com 649 093 397 ORDIZIA

Egurrezko egiturak • Baserri berritzeak  
Teilatuko lanak eta Mantenimentua • Teilatu-hodiak • Fatxadak  
Fatxada aireztatuak egiten ditugu SATE eta zeramikoarekin